05. Paisaiaren eraikuntza

1. Sarrera. Paisaiaren diseinua arteetan zabalenetakoa da, zibilizazio bakoitzak haren ikuspegi ezberdina izan duelarik. Tradizioz paisaiaren diseinua lorategi eta parkeekin erlazionatua izan da, baina urbanizazio prozesuarekin batera zentzu zabalago batean ere uler daiteke.
    - Paisaia termino lausoa bilakatu da: askotan lurraldearen sinonimo gisa erabiltzen da; besteetan, naturarena. Paisaia mota ezberdinak aipatzen dira: paisai naturala, paisai artifiziala, hiri-paisaia, gizarte-paisaia…
    - Europako Kontseiluak paisaiaren definizioa eman zuen 2000an: Paisaia biztanlegoak hautematen duen lurralde-zatia da, eta haren izaera giza- eta natura-faktoreen arteko elkarreraginaren emaitza da.
    - Hortaz, paisaia egoteko subjektu bat egon behar duenez, esan daiteke paisaia errealitatearen eraikuntza mental bat dela. Beste era batean esanda, paisaia ez da lurraldea bera, baizik eta lurraldeaz dugun pertzepzioa. Paisaia subjektiboa da (Jean Nouvelentzat, kasu, ederragoa da larre bat erdian tentsio altuko poste bat badago). Baserritarrentzat, gehienetan, mendia ez da paisaia, lantokia baizik.
2. Paisaiaren eraldaketa produktiboak (nekazaritzarekin erlazionatutako partzelazioak):
    - Abere-larreak. Toloño mendia.
    - Harrespilak (ehorzketak egiteko eta funtzio erlijiotsua ere izan zezaketen). Hilarrita, Ezterenzubi, Behenafarroa (Okabe 1.466 metroko mendi altuan). Harrespilak Ingalaterran: Stonehenge eta Swinside.
    - Hamabi gorabiletako saroiak, XVI. mendekoak. Akola-Alkatxurain sarobea (Hernani), Alonsotegiko sarobeak (1830ko planoa), Txertoki eta Orenzun sarobeak (Leitzaran; XVI. mendekoak, gutxienez). EITBko *Postdata* saioa (3,01 min).
    - La Geriako mahastiak, Lanzarote. Haizearen babesa eskuratzeko egiturak.
    - Akuikultura Mediterraneoan (arrain-haztegiak).
    - Ihinztaketa zirkularreko larreak. Le Mans (Frantzia), Casas Blancas (Errioxa Garaia), Teton River (Montana, AEB), Farmington (Mexiko Berria, AEB), Dell City (Texas, AEB).
    - Lursail goldatuak ur-arroetan, Monegroak, Zaragoza; Alfajaringo inguruak.
    - Lursailen zatitze "demokratikoa" (guztiek ur-bazterra izan dezaten), Mississipi ibaiaren ertzean, Louisiana, AEB.
    - Almeriako hegoaldeko negutegiak (Ilargitik ikus daitekeen giza-eraikuntza bakarra; Txinako harresia ikusten dela ez omen da zuzena).
    - Baratze zapaldatuak edo mailakatuak: Erret bailarako "andeneak", Peru, XIV. mende ingurukoak (Pisac eta Machu Pichu); Mallorcako Tramontanako mendilerroa; La Gomerako Agulo herriko baratza mailakatuak; Punta de la Escalera (Benidormeko aldiriak); zapaldak Nafarroako Baztango Ziga herrian.
3. Paisaiaren eraldaketa artistikoak.
    - Luis Peña Gantxegiren lurzoruaren geometrizazioa: Donostiako Trinidade plaza, 1961, eta Tenis plaza, 1975; Gasteizko Foruen plaza, 1979; Gudariaren omenezko monumentua, 1977, Oiartzungo hilerria (aldera daiteke Chillidaren Gijongo "Ortzimugari gorazarre" izeneko eskulturarekin).
    - Nazcako marrazketa monumentalak, Peru, K. a. 300 – K. o. 600. urtean eginak. Batzuk 275 metroko luzera dute. Kolibria, eskuak, armiarma, giza-irudia ("astronauta").
    - Eskalak eta tamainen erlatibotasuna. 60-70. hamarkadako Land Art mugimendua:
        a. Richard Long: "A line made by walking", 1967; "England", 1968; "River Po Line", 2001.
        b. Michael Heizer: "Double negative", 1969, Nevada.
        c. Walter de Maria: "Lightning field", 1977, Mexiko Berria.
        d. Robert Smithson: "Spiral Jetty", 1970, Utah.
        e. Christo: "Running fence", 1972-1976, California (aldera daiteke Suitzan dauden elur-jausien aurkako hesiekin, baita Txinako harresiarekin ere bai).
    - Lorategi japoniarra. Kyoto: Daisen-in eta Ryogen-in (XV. mendekoa) lorategi lehorrak. Eskala eta sinbolismoa.
    - Charles eta Ray Eames: *Powers of Ten* (hamarreko potentziak) film laburra (9 min), 1977. Eskala makroa eta mikroa (Aldo van Eyck).